

HODEIA: ERABILTZAILEN ESKUBIDEAK

KOMUNIKAZIO ARGIA ETA ZEHATZA

1

"Hodeia" oinarri hartuta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek (sare sozialak, bilatzaileak, streaming zerbitzuak eta abar) ezin dute erabiltzaileen erosketa eta kontsumo historia salerosi, aurretik haien baimenik jaso ez badute. Plataforma horiek argi eta zehatz adierazi behar dituzte euren pribatutasun politika eta zerbitzu baldintzak, hau da, irakurtzeko eragozpide izango den lege jargoirik erabili gabe.



XEDE KOMERTZIALAK EZAGUTZEA

2

Edukien gomendio sistemak hobetu edo erabiltzaileek egindako erosketekin zerikusia duten publizitateko diru-sarrerak sortu nahi direnean, erosketa historia xede komertzialekin berriro erabiltzeko asmoa duten plataformek alde aurretik jakinarazi beharko diete erabiltzaileei zein motakoa den plataformetan gordetzen duten informazioa, zenbat denboraz gordetzen duten eta zein xede komertzialarekin.



ALDAKETAK ALDEZ AURRETIK JAKINARAZTEA

3

Hodeia oinarri hartuta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek ezin dituzte ezabatu edo aldatu erregistratuta dauden erabiltzaileen datuak, erabileraren baldintzei buruzko politika argirik ez badute eta, batez ere, alde aurretik arrazoitu edo abisatu gabe.



HISTORIA GARBITZEA

4

Hodeia oinarri hartuta zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek ezin dituzte ezabatu edo aldatu erregistratuta dauden erabiltzaileen datuak, erabileraren baldintzei buruzko politika argirik ez badute eta, batez ere, alde aurretik arrazoitu edo abisatu gabe.



JABETZA BERMATZEA

5

Eskuratutako edukiak (ikus alokatutako edukietarako baldintzak 6. puntuak) erosi dituztenen jabetzakoak direla bermatu behar dute online sarbide-plataformek.



ALOKAIRUA JAKINARAZTEA

6

Edozein eduki digital alokatu, irakurtzeagatik ordaindu edo harpidetzean, erabiltzaileek informazio argia eta zehatza jaso behar dute, lege jargoirik gabe, jakin dezaten denborari eta erabilerari dagokien zerbitzua mugatua dela, hau da, ez dela betirako eskuratutako edukia.



MURRIZKETARIK GABEKO ZERBITZUA

7

Jabetzan nahiz alokairuan, hodeian dugun liburutegian edozein gailutik sartzeko aukera bermatu behar da, sistemak, eskubideak, mugak eta abar direla-eta murrizketarik jarri gabe, eta betiere modu atsegina eta irakurterraz batean.



8

PRIBATUTASUNA BERMATZEA

Zeharo pribatua den ingurunean erosketak egin nahi dituztenei euren erosketa datuak inoiz ere ez biltegiratzeko eta hirugarrenei ez salerosteko aukera eman behar diete online sarbide-plataformek.



10

OHARRAK EGITEKO AUKERA

Erabiltzaileek euren edukiak azpimarratu, markatu eta haietan oharrak jar ditzakete anonimotasunean. Gainera, nahi izanez gero, beste erabiltzaile batzuekin partekatu ahal izango dituzte euren ohar pertsonalak baina, edozein unetan iritzi aldaturik gero, euren ohar eta abarren historia hodeitik osorik garbitzeko aukera izango dute.



9

OPARITZEA EDO BERRIZALTZEA

Eskuratutako edozein eduki oparitu edo berriz saltzeko aukera dute erabiltzaileek, euren liburutegi digitaletik kendu nahi dutenean.



11

DATUEN ERAMANGARRITASUNA

Operadorez aldatzean gure telefono mugikorraren zenbaki berarekin jarraitzeko aukera izaten dugun bezalaxe, erabiltzaileen datuen eramangarritasuna bermatu behar dute plataformek. Edozein arrazoiengatik erabiltzailearen batek plataformaren bat utzi nahi badu, bere datu pertsonalak, adiskideak, oharrak eta erosketa historia modu erraz eta eraginkorrean eraman ditzake plataforma berrira.



12

AHAZTEKO ESKUBIDEA

Erabiltzaileek, edozein unetan eta behin betiko, euren erosketa edo alokairu historia garbitu dezakete, baita datu pertsonal guztiak ezabatu eta eskuratutako eduki guztiak desegin ere, hodeiko zerbitzarien memoria birtualean inolako arrastorik utzi gabe.



donostiakultura.com
San Sebastián, ciudad de la cultura



Gestión 2000

Gestión 2000-k landutako infografia, Dosdoce.com-ekin lankidetzan, Javier Celaya-ren "La empresa en la Web 2.0" liburuaren argitalpena dela-eta. Informazio gehiago: www.gestion2000.com - [@Gestion2000](https://www.facebook.com/gestion2000) Elkartu zaitetz liburuari buruzko solasaldira Twitter #Empresa2.0

